

DERIOKO UDALA

Ekonomiaren sustapenaren eta enpleguaren arloko udal-estrategia 2017ko Enplegu Plana

1. Aurrekariak.
2. Ardatz nagusia: gaitasun pertsonalen garapena.
3. 2017ko jarduketa-ildoak.
 - 3.1 1. FASEA. Gaitasun profesionalak lortzeko prestakuntza.
 - 3.2 2. FASEA. Gaikuntza teknikoa.
 - 3.2.1 Lorezaintza.
 - 3.2.2 Bulegotika.
 - 3.3 3. FASEA. Enplegua sustatzea.
 - 3.3.1 Lanpostuak sortzea.
 - 3.3.2 Kontratatzekeo laguntzak.
4. 2017ko aurrekontua

1. Aurrekariak

Enplegu-plan honen helburua da ez ahaztea enplegua lortzeko zailtasunak dituzten pertsonak. Egoera hori hainbat arrazoiengatik izan daiteke, eta askotan, arrazoiak elkarrekin lotuta daude, esaterako: oinarrizko prestakuntza edota prestakuntza espezifikoa ez izatea, lan-esperientziarik ez izatea, adina, generoa... Arrazoi horiek gizarte-bazterkeriako prozesua edo arriskua eragin dezakete. Azken hori aintzat hartuta, ikusi da beharrezkoa dela jarduera zehatzak egitea pertsona horiek gizartean eta lan-munduan sartzeko.

Plan honen bitartez, lortu nahi da ezagutza eta lan-esperientzia ematea pertsonen kolektibo jakin bati, kualifikazio profesionala lor dezaten eta enplegua aktiboki bilatu ahal izateko baliabideak jaso ditzaten, gizarterako baliagarri diren lanak egiten dituzten bitartean.

Helburuok lortzeko, ekimenak hainbat fase izango ditu: programaren hartzaileak gaitzea hainbat lanbidetan, lanbidean esperientzia eta gaitasunak eskuratzea, eta lanarekin lotutako gizartearen eta norberaren arloko ohiturak eta gizarte-gaitasunak garatzea.

2. Ardatz nagusia: gaitasun pertsonalen garapena

Egaz Txorierri eskualdeko pertsonak aukeratzeko zerbitzua da. Haranak eskaintzen dituen aukerei buruzko informazioa ematen du, eta lan bila dabiltzanei babesa eta aholkuak ematen dizkie.

Egiten dituen bitartekotza-lanei esker, enpresek behar duten talentua lortzeko zer irizpideri jarraituko dieten aztertzen du.

Egaz Txorierri uste du beharrezkoa dela pertsonen berehala irakastea jarraibide horiek, jada errealitatea direlako.

Geroa ez da existitzen eta iragana joan da; gaur da eguna.

Proaktibitatea, motibazioa, sormena, enpatia, taldeko lana... Azken finean, gaitasun pertsonalak eta profesionalak izango dira lan-merkatuan sartzeko baliabide nagusiak.

Egaz Txorierri egokitua du bere zerbitzua, eta prest dago lan-eskaintza eta lan-eskaria bateratzeko modu berri horri heltzeko.

Hauxe da garaia pertsonak trebatzeko eta enplegua bilatzeko modu tradizionalarekin lotutako jarrera pasiboak eraldatzeko; hauxe da, hain zuzen, pertsonak alde horretatik indartzeko garaia. Ezinbestekoa da pertsonak ekitera eta konpromisoz eta era proaktiboan taldean lan egitera bultzatzea.

Ikuspegi-aldaketa hori lortze aldera, laneko metodologia *coaching* tekniketari oinarritzen da, eta langabeak euren enplegu-prozesuen protagonista izateko motibazio-saioak ematen dira.

Horretarako, ezagutza trukatzeko, elkarrekin konfiantza izateko eta elkarri laguntzeko gune bat sortuko da, eta, hala, pertsonen gaitasun emozionalak, komunikatzekoak, berritzekoak, erabakitzekoak eta ahalegintzekoak hobetuko dira, eta enpleguari jarrera aktibo, konprometitu eta solidario batetik helduko zaio.

3. 2017ko jarduketa-ildoak

1. FASEA Gaitasunak garatzea

8 pertsona

Coaching teknikak



- Nork bere burua ezagutzea
- Emozioak kudeatzea
- Motibazioa
- Proaktibitatea
- Nire "marka pertsonala"
Motibazio-saioak
(20 ordu)

2. FASEA Gaikuntza teknikoa

8 pertsona

Lorezaintza
Teorikoa-praktikoa
(90 ordu)

8 pertsona

Bulegotika
Word - Excel - Internet
(20 ordu)

3. FASEA Enplegua sustatzea

3 pertsona

Peoiak
3 lanpostu
(6 hilabete, % 75eko lanaldia)

2 pertsona

Administrazioa
2 lanpostu
(7 hilabete, % 50eko lanaldia)

5 pertsona

Kontratatzeko laguntzak
5 beka
(10.000 €)


3.- 2017ko jarduketa-ildoak

8 pertsona

3.1.- 1. FASEA. Gaitasun pertsonalen eta profesionalen garapena

Prozesu honetan, elkarrekin loturiko eta koordinaturiko baliabide eta zerbitzu espezializatuak emango zaizkio partaideari, bere ezaugarri propioei egokituta, enplegua lortzeko aukerekin zerikusia duten alderdietan eragite aldera.

- Enplegua bilatzeko prozesu osoan, partaideak lanerako aktibatuko dira.
- Lanerako eta gizarterako zeharkako gaitasunak hobetu eta ahalduntzea sustatuko da, lan-munduari beldurrik gabe ekiten lagunduko duten tresnen bitartez, eta gaitasun guztiak landuz.



- Gaitasun profesionalak hobetu eta lanposturako eskarmentua lortuko da, lan-munduaren inguruko ezagutza sakonduz eta jasotako prestakuntzari lotutako aukera profesionalak zabalduz. Halaber, lanean hasteko aukerak areagotuko dira, enpresetan proiektuak eta praktikak eginez.

3. 2017ko jarduketa-ildoak

8 pertsona

3.2 2. FASEA. Gaikuntza teknikoa

3.2.1. Lorezaintza. Lorategiak, parkeak eta berdeguneak instalatzeko oinarrizko lanak. 90 ordu.

Prestakuntza espezifiko honi dagokion sektorea komunitateari lan-aukera eman diezaiokeen lan-arloetako bat da, udalerrriak interes handia baitu arlo horretan.

Partaideen profil profesionala diziplina anitzekoa izan daiteke, baina ezinbestekoa da lanak zuzen egiten direla bermatzeko prestakuntza espezifikoa jasotzea, segurtasun handiena izateko eta modu egokian gauzatzeko. Amaitutakoan, diploma bat jasoko dute.

HELBURU OROKORRA

- Gauzatu beharreko lanetarako teknika seguruak erabiltzea ahalbidetuko dieten ezagutza teoriko nahiz praktikoak eskuratzea.

HELBURU ZEHATZAK

- Lorezaintzako eta paisaia leheneratzeko proiektuak egitea.
- Lorategi-mota oro gainbegiratzea eta zaintzea, eta horien mantentze-lanak egitea.
- Inausketa-lanak egitea.
- Materia begetala ereiteko eta landatzeko lanak egitea.
- Gaikuntza tekniko txikiagoa duten langileak koordinatzea.
- Norbere kargura dagoen materiala zaintzea eta garbitzea.
- Ureztatze-sistema erabiltzea eta uraren aprobetxamendu optimizatzea.



3. 2017ko jarduketa-ildoak

8 pertsona

3.2 2. FASEA. Gaikuntza teknikoa

3.2.2 Bulegotika. 40 ordu.

Gaur egun, lan-munduan sartzeko, hainbat ezagutza izan behar dira, lehiakortasun handia dagoelako. Enpresa gehienek, guztiek ez esateagatik, egunero erabiltzen dituzte bulegotikako tresnak.

Horrenbestez, horiek erabiltzen ikastea puntu positibo bat da bulegoko lan jakin batzuetan aritu nahi dutenentzat.

HELBURU OROKORRA

- Edozein enpresatako administrazio-kudeaketa egiteko beharrezkoak diren bulegotika-tresnak erabiltzeko ezagutza teorikoak nahiz praktikoak eskuratzea.

HELBURU ZEHATZAK

- Testuak lantzea.
- Word erabiltzea.
- Kalkulu-orriak.
- Excel erabiltzea.
- Internet.
- Nabigazioa.
- Segurtasuna.



3. 2017ko jarduera-ildoak

5 pertsona

3.3 3. FASEA. Enplegua sustatzea.

3.3.1. Udal-intereseko jarduerak gauzatzeko pertsonen kontratazioa

Enplegu-plan honen beste ekintza garrantzitsuetako bat da lan-esperientzia ematea pertsonen kolektibo jakin bati, gaikuntza profesionala izan dezaten eta enplegua aktiboki bilatu ahal izateko baliabideak jaso ditzaten, gizarterako baliagarri diren lanak egiten dituzten bitartean. Hala, enplegu-plan honetan, kontratazio hauek aurreikusi dira:

3 peoi-lanpostu (zerbitzu anitzeko espezialistak)

- Kontratu-mota: obra edo zerbitzu jakineko aldi baterako kontratua.
- Lanaldi-mota: lanaldi partziala (ohiko lanaldiaren % 75).
- Kontratuaren iraupena: 6 hilabete.
- Ordainsaria: Bizkaiko Eraikuntzako Hitzarmenean ezarritakoaren araberakoa.
- Kontratuaren barnean probaldi bat egingo da.

2 lanpostu administrari laguntzaile gisa

- Kontratu-mota: aldi baterako kontratua.
- Lanaldi-mota: lanaldi partziala (ohiko lanaldiaren % 50).
- Kontratuaren iraupena: 7 hilabete.
- Ordainsaria: Bizkaiko Bulego eta Despatxuen Hitzarmenean zehaztutakoaren araberakoa.
- Kontratuaren barnean probaldi bat egingo da.



3. 2017ko jarduera-ildoak

5 pertsona

3.3 Enpleguaren sustapena.

3.3.2. Kontratazeko laguntzak

Tokiko eragileek jakin badakite merkatu pribatuak gizartearen hazkundeari eta garapen ekonomikoari laguntzen diola, eta, horrenbestez, enpresetan lan egiten dutenek eragiten dutela erakunde bat lehiakorra izatea. Hortaz, kontrataziorako hainbat laguntza diseinatu dira prozesu hori bultzatzeko.

Laguntzak lantaldean pertsona berriak hartzen dituzten enpresetarako izango dira. Laguntzok kalitatezko enplegua kontratatzea sustatuko dute eta laneratzeko zailtasunak dituzten kolektiboei lagunduko diete.

HELBURU OROKORRA

- Diru-laguntzak ematea merkatu arrunteko enpresei, langabezian dauden eta Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan lan-eskatzailerak gisa izena emanda dauden pertsonak kontratazeko.

HELBURU ZEHATZAK

- 2.000 euroko 5 laguntza udalerrian erroldatutako pertsonak lanean hasteko.
- Kontratu-betebeharrak: kontratu mugagabeak edo iraupen jakin batekoak. Gutxienez 3 hilabetekoak izango dira eta gutxienez lanaldiaren % 100ekoak.
- Laguntzak emateko, eskaera egiteko ordena eta puntuazio-baremo hau hartuko dira kontuan:
 - Puntu bat, udalerriko enpresa kontratatzailea izateagatik.
 - Puntu bat, 35 urtetik beherako pertsonengatik.
 - Puntu bat, emakumeengatik.



4. 2017ko aurrekontua

Ekintza	Zenbatekoa	Ekintza-kopurua	Zenbateko osoa
3.1. ekintza. Gaitasun profesionalak lortzeko prestakuntza	4.000,00 €	1	4.000,00 €
3.2. ekintza. Gaikuntza teknikoa			
3.2.1. ekintza. Lorezaintza	7.500,00 €	1	7.500,00 €
3.2.2. ekintza. Bulegotika	3.000,00 €	1	3.000,00 €
3.3. ekintza. Enplegua sustatzea			
3.3.1. ekintza. Peoiak	12.502,00 €	3	37.506,00 €
3.3.2. ekintza. Administrazioa	8.997,00 €	2	17.994,00 €
3.2.3. ekintza. Kontratatzeko laguntzak	2.000,00 €	5	10.000,00 €
2017ko Enplegu Planaren kostua, guztira			80.000,00 €